



## 2023.005.T TXOSTENA

Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak –Gipuzkoako Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak- duen 34. artikuluan ezarritakoa betez, **Kreditu Gehigarriaren** bidez aurrekontu aldaketa egin beharra zuritzen duen txosten hau egiten da.

Azaldutako araudiarekin bat etorritz, txosten honek zehazten du eragiten dien aurrekontu aplikazioak, eta ondorengo azaltzen dut:

Udalbatzak 2022ko abenduaren 12ko Ez-Ohiko bilkuran 2023ko aurrekontu orokorraren hasierako onarpena egin eta 70.000,00 euroko diru-partida onartu zuen lehia bidezko ekintzaitzaren sustapenerako eta enpresa lehiakortasuna hobetzeko diru-laguntzak emateko. 70.000,00 euro hauek Hondarribia Abian programako 1 0115.480.01.433.20 2023 (8993) partidan daude.

Ikusirik, diru-laguntza hauetan bi lerro bereizten direla, bata Hondarribian ekintzaitzaren sustapena eta bestea txikizkako merkataritzaren eta zerbitzuen saltokien modernizazioa eta bigarren honetan diruz-lagundu daitezkeen gastuak inbertsio gastuak direla, egokiagoa litzateke 2023ko deialdiko txikizkako merkataritzaren eta zerbitzuen saltokien modernizazioaren lerroari dagozkion 35.000,00 euroak ordaintzeko 4. Kapituluko dirua erabili beharrean 7. Kapituluko dirua erabiltzea.

Eragindako aurrekontu aplikazioak jarraian doan aldaketa proposamenean zerrendatuta daudenak dira:

### **KREDITU GEHIGARRIA HANDITU BEHARREKO AURREKONTU APLIKAZIOAK**

<b>GASTUEN EGOERA</b>		
<b>HANDITU BEHARREKO AURREKONTU APLIKAZIOAK</b>		
<b>AURREKONTU APLIKAZIOA</b>	<b>DESKRIBAPENA</b>	<b>ZENBATEKOA (€)</b>
1 0115.771.01.433.20 2023	<i>KOMERTZIOA JARTZEKO DIRULAGUNTZAK - Inbertsioak</i>	35.000,00
<b>HANDITU BEHARREKO AURREKONTU APLIKAZIOAK</b>		

### **FINANTZAKETA, MURRIZGARRIAK IKUSTEN DIREN AURREKONTU APLIKAZIOAK**

<b>SARREREN EGOERA</b>		
<b>AURREKONTU APLIKAZIOA</b>	<b>DESKRIBAPENA</b>	<b>ZENBATEKOA A (€)</b>
1 0115.480.01.433.20 2023	<i>KOMERTZIOA JARTZEKO DIRULAGUNTZAK</i>	35.000,00

**Elektronikoki sinatutako dokumentua  
Turismo eta merkataritza teknikaria**